

azpeitianzer?

udal aldizkaria

146. zenbakia
2012ko martxoa

Gipuzkoako ur kontsortzioa

*Herriko uren kudeaketa eta
zerbitzua enpresa publikoaren
esku utzi du Udalak*



*Azpeitiko Udalak 1.600.000 euro
itzuli behar dizkio Foru Aldundiari*

ale honetan zer?

- 3 Udal zerbitzua eta erabakiak
- 4 Denon artean+foru fondoa
- 6 Elkarriketa
- 8 Ur kontsoltzioa
- 10 Zuk ere ahal duzu!
- 11 Ziurtagiri banaketa
- 12 Motxean
- 14 Agenda

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala
Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: EREGI, Euskara eta Komunikazioa

Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa
Ale kopurua: 7.000
L.G: SS - 1148/91

Azpeititik kanpo bizi
arren, zure etxean jaso
dezakezu Azpeitian Zer?
aldizkari hau posta bidez.
Egin eskaria 943 15 71 85
(Alkatetza) telefonoan.



telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00	Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79	Euskara Patronatua	943 81 45 18
Alkatetza	943 15 71 85	Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16	Udal Euskaltegia	943 81 19 47
Idazkaritza	943 15 71 98	Zapo Txoko	943 15 71 61	Lapatx Zabortegia	943 15 18 75
Kontuhartzailatza	943 15 71 89	Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60	Azpeitia Lantzen S.A.	943 15 71 83
Hirigintza	943 15 71 91	Eguneko Zentroa	943 15 74 96	Ingurugiro Etxea Fundazioa	943 15 17 13
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92	Liburutegia	943 15 71 95	Tokiko Agenda 21	943 15 70 70
Kultura	943 15 70 68	Udaltzainak	943 15 13 13	Kontsumitzaileen	
Komunikazioa	943 15 79 82	Suhiltzaileak	112	Informaziorako bulegoa	943 15 71 93
Kirolak	943 15 00 95	Igerilekua	943 81 41 21	Baigera I	943 81 44 64
Parekidetasuna	943 15 79 28	Kiroldegia	943 81 30 69	Baigera II	943 81 23 89
Emakumeen Txokoa:	943 15 70 55	Izarraitz Pilotalekua	943 81 25 63	Ingurugiro Etxea Museoa	943 81 24 48

botikatzandak



ALBERDI. Jose de Artetxe 6, Tel.: 943 81 59 74
Martxoaren 3, 4, 7, 14, 22 eta 28.


ARANBURU. Plaza Nagusia - Goiko kalea 2
Tel.: 943 81 13 50
Martxoaren 5, 10, 11, 26 eta 31.

BERISTAIN. Urbitarte auzoa 3, Tel.: 943 81 19 49
Martxoaren 1, 6, 13, 16, 21 eta 27.

EIZAGIRRE. Enparan 29, Tel.: 943 81 12 74
Martxoaren 2, 8, 15, 19, 24, 25 eta 30.

JACOME. Garmendi 21, Tel.: 943 08 02 58
Martxoaren 9, 12, 17, 18, 20, 23 eta 29

Udal zerbitzuak



azpeitiko
**emakumeen
TXOKOA**



Herriko parekidetasunaren aldeko ekimen, aldarri eta taldeen topalekua izatea. Hori da Azpeitiko Emakumeen Txokoaren helburua eta horretarako, emakumeen ahalduztze prozesua bultzatzeko tresnak eskaintzen dira bertan. Bizitzako esparru askotan emakumearen parte-hartzea sustatzeko, emakumeen papera eta lana ikusgarazteko edota sexu edo sexualitate arazoak tarteko baztertzeko dituzten sektoreekin lotutako ekimenak antolatzen dira eta gune desberdinak ditu ekimenak aurrera eramateko; harrera, bulegoa, balioanitzeko aretoa eta bilera gela. Ekimen guztiak egiteko toki finko eta jakin bat izateak zerbitzuak indartzea dakar eta era horretan, herritarrek leku erreferente bat dute Emakumeen Txokoan.

• Non:

Izarraitz pilotalekuko beheko lokaletan, sarrera haur parke estalitik du

• Ordutegia:

asteartetik ostiralera 16:00etatik 20:00etara eta larunbatetan 10:00etatik 13:00etara

Udal erabakiak

Otsailaren 17an egindako Udalbatza Osoa:

1. Azpeitiko Udalak aho batez erabaki zuen uraren ziklo integralaren kudeaketa (hornidura eta saneamendurako 'goiko' eta 'beheko' sareen kudeaketa) Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren esku uztea.

Martxoaren 6ko ohiko plenoa:

1. 2012ko otsailaren 7ko eta otsailaren 17an egindako bilkuren aktak onartu ziren.
2. Aho batez onartu zen martxoaren 8ko Emakumeen Nazioarteko Egunari buruzko adierazpena.
3. Karabanentzako eta auto-karabanentzako aparkaleku publikoaren arautegia (Bagoaz Elkartearekin elkarlanean egindakoa) aho batez onartu zen.
4. Azpeitiko Euskara Patronatua Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kontratazio Zentralari atxikitzea aho batez onartu zen.
5. Aho batez onartu ziren ondorengo obra, eraikuntza eta instalazio zergaren hobariak ematea.
 - a) Arriaga-gaineko terrenoetan artesia jartzeko jardura eta obra baimena (Alkatetzak 2011ko abuztuaren 3an emandako udal-baimena).
 - b) Arriaga gain etxean igogailua jartzea (Herriaren Gobernu Batzarrak 2011ko irailaren 20an emandako udal-baimena).
 - c) Iraurgi Ikastetxean beharrezkoak diren mantentze-lanak egitea (Alkateak 2010eko uztailaren 8an emandako udal baimena).
 - d) Azpeitiko Osasun zentroan bilera gela bat egokitzea (Alkateak 2011ko uztailaren 19an emandako udal baimena).



Manuel Unanue eta Iñaki Portilla zinegotziak

Honen aurrean Udalak ateratzen dituen ondorioak lau dira:

1. Informazio guztia izan arte aurrekontuen onarpena atzeratzea erabaki genuen eta honek, ondo egin genuela erakusten digu. Are gehiago, egindako aurreikuspenak konfirmatu egin dizkigu.
2. Krisi ekonomikoaren eragina latza da bai Gipuzkoan eta bai Azpeitian.
3. 2012ko aurrekontuak ixteko, Udalak hausnarketa serioa eta efizientzia behar ditu. Hausnarketa hau egiten ari gara, baina pentsatzen genuena baino sakonagoa izan beharko du. Izan ere, gaur egun dugun egoeraren arabera, aurrekontuak orekatzeko bakarrik 1.000.000 euro behar dira.
4. Hurrengo urteetan, Azpeitiko Udaleko diru-sarrerak nabarmen gutxituko dira. Egoera berrira moldatu beharko dugu zerbitzu publikoak garantizatzen.

Udalak 1.600.000 euro itzuli behar dizkio Aldundiari

Kopuru osoaren milioi bat euro 2011ko likidazioaren ondorioz da eta gainontzeko 600.000 euroak, berriz, 2009 urtekoak dira

Otsailaren hasieran Gipuzkoako Foru Aldundiarekin egindako bileraren ondoren, Azpeitiko Udalak milioi bat euro itzuli beharko dizkio Gipuzkoako Foru Aldundiari 2011 urteko likidazioaren ondorioz. Baina ez da hori bakarrik aurtun diputazioari itzuli beharreko kopurua. Izan ere, 2009 urtean 1.953.955,73 euro itzultzea egokitu zitzaion Azpeitiari, eta diru kopuru hori hiru zatitan itzultzea hitzartu zuten: urteko 651.318 euro. Beraz, aurtun itzuli beharreko diru kopuru osoa 1.677.326,68 euro izango dela agertu du Ogasuneko batzordeburu den Manuel Unanuek.

UDALAK FINANTZATZEKO FORU FONDUA

Foru Aldundiak 2011n aurreikusitako = ordaindutakoa	8.078.803,91
Foru Aldundiaren likidazioaren arabera kobratutakoa	1.026.008,10
Likidazioaren arabera 2011ko kopurua	7.052.795,81
Itzuli beharreko kopurua	1.026.008,10
2009an itzuli beharreko kopurua (hiru urtetan, 2011, 2012 eta 2013)	1.953.955,73
2012aren hasieran itzultzeko dagoena	1.302.637,15
2012 urtean itzuli beharrekoa	651.318,58
2012an itzuli beharreko kopuru osoa	1.677.326,68

Denon Artean kanpainaren amaierako bilera martxoaren 14ean egingo da

Hitzordua 19:00etan izango da Sanagustin kulturgunean eta Udalak herritar eta eragile guztiei bertaratzeko gonbidapena luzatu nahi die



Urola ibaia auzolanean garbitzen herritar talde bat

foru Aldundiari itzuli beharreko diruak bere eragina izango du aurtengo aurrekontuetan. Udala 2012ko kontuak aztertzen dabil eta laster onartuko ditu, baina hala ere, herritarrei aurkeztuko dizkie, Azpeitia Denon Artean kanpainaren baitan hitz eman bezala. Abenduan aurkeztutako aurrekontu parte-hartzaileen kanpainaren amaiera martxoaren 14ean egingo da, 19:00etatik aurrera Sanagustin kulturgunean. Bertan aurkeztuko dira kanpainaren balorazioa eta Udalaren asmoak.

Hala ere, Udal ordezkariak oso gustura agertu dira ekimenak izan duen erantzunarekin: "Aurreikuspen baikorrenak ere gainditu ditu. Izan ere, guztira 733 herritarrek parte hartu dute Azpeitia Denon Artean kanpainaren baitan antolatutako ekimenetan. Adin nahiz sentsibiltate desberdinetako herritarrak elkartu dira egindako 27 batzarretan, eta horrek balio berezia

ematen dio ekimenari. Esperientzia pilotu bezala, froga gisara, martxan jarritako kanpaina ekimen arrakastatsua bilakatu da", agertu dute.

Kanpainaren datu orokorrak

AUZUNEAK 218 herritar

AUZOAK 117 herritar

ARLOAK 228 herritar

AUZOLANA 70 herritar

GUZTIRA 733 herritar

Asko dira ekimenean zehar jaso diren proposamenak, 400 inguru, bilerak, gutun edota helbide elektroniko bidez: "Eskerrik beroenak eman nahi diegu parte hartu duten herritarrei, orain guri dagokigu erantzuna ematea. Eta

hori martxoaren 14ko bileran egingo dugu, beraz, herritarrei eta eragileei gerturatzeko deia luzatu nahi diegu, bilerak irekia izango baita. Herritarren dirua nola gastatu erabakitzen ari gara eta jakin bezala, Udalak ere ez ditu garai xamurrak bizi", gaineratu dute.

"Herritarren dirua nola gastatu erabakitzen ari gara eta jakin bezala, Udalak ere ez ditu garai xamurrak bizi"

Auzolanerako lehen pausoak eman dira dagoeneko. Herritar batek aurkezpenean egindako proposamenari helduz, urtarrilaren 28an 70 herritar aritu ziren Urola ibaia garbitzen: "Gaur Azpeitia garbiago bat daukagu. Hau hasiera besterik ez da, ea aurrerantzean ere horrela jarraitzen dugun".

elkarriketa

Aritz Epelde Zerbitzu Orokorreko batzordeburua



“Helburu nagusia gutxiago azpikontratatu eta zerbitzu publikoen eraginkortasuna igotzea da”

Herriarentzat oinarritzkoak dira azpiegituren mantenua, Udaltzaingoa edota garbiketaren lanak. Hauen ardura Zerbitzu Orokorretako batzordeburu den Aritz Epelderi dagokio

Zein garrantzia dute zerbitzuek azpeitiarren egunerokotasunean?

Edozein herriren eguneroko funtzionamendurako oinarritzkoa da hainbat zerbitzu ematea. Adibidez garbiketaren lanak (izan kale, berdegune edo eraikin), ur edo elektrizitate instalazioen mantenua eta Udaltzaingoa ezinbesteko zerbitzuak dira.

Zeintzuk izango dira zure saileko asmo nagusiak?

Eskaintzen diren zerbitzuen efizientzia hobetzea da helburu nagusia, gutxiago azpikontratatu eta zerbitzu publikoen eraginkortasuna igotzea. Baina beti zerbitzuen kalitatea aztertuz. Adibidez, gauregun lorezaintzaren kalitatea nahikoa dela irizten diogu, beraz, antolakuntza

hobetuz, kalitate bera prezio hobean lortu dugu, gutxiago azpikontratatu behar dugulako. Bestalde, makinarian ere inbertsioak aztertzen ari gara zerbitzu hobea eman, gutxiago azpikontratatu eta gaur egun egiten diren hainbat lan azkarrago, beraz merkeago, egiteko

Eta inbertsioak non egingo dituzue?

Azpeitiarrontzat errentagarria litzateke Udalak azpikontratatzaren dituen hainbat zerbitzu beregain hartzea. Hala ere, gaur egun ezinezko zaigu, Madrilgo PPren gobernua eragotzi baitu zerbitzu publikoak indartzea, lanpostu publiko berriak sortzea. Egoera honetan, antolamenduan, formakuntzan eta makinarian inbertitzea beste aukerarik ez dugu.

Azpeitia Denon Artean kanpaina amaierara iristen ari da. Azpeitian lehenbizikoz egin den kanpaina izan da, zein balorazio egiten duzue? Espero zenuten erantzuna jaso al duzue?

Balorazioa oso positiboa da, 700 azpeitiar baino gehiagok hartu dute parte egin diren 27 batzarretan. Hauetan Udalak bere egoera eta asmoak herritarrei ditugardentasunez eta honela herritarren kontrol ahalmena ere handitzen da. Udalaren asmoak herritarrekin aztertzeaz gain, herritarren beharrak jaso ditugu arlo eta auzo ezberdinetan. Zentzu honetan oso ekimen aberasgarria izan da eta benetan eskertu nahi diegu herritarrei izandako jarrera parte-hartzailea eta sortzailea. Orain gure esku dago denon artean egindako lanketari bide ematea.



Zerbitzu Orokorretako zinegotzia izanik, auzo eta baserriar askorekin egon behar duzu. Azpeitia Denon Artean proiektuaren baitan egindako bileretan, hauen errealitatea gertuagotik ezagutzeko aukera izan al duzu?

Komunikazioa ezinbestekoa da elkar ezagutzarako. Kasu honetan auzo eta baserriarren beharrak hobeto ezagutu eta neurtzeko balio izan digu ekimenak. Izan ere, Alde Zaharrean bizi denaren eta baserrian bizi denaren beharrak desberdinak dira, eta azken hauenak oinarritzekoak direla ikusi dugu.

Eta orain, zeintzuk esango zenuke direla auzotar eta baserriarren behar nagusiak?

Ohiko azpiegituz gain (errepideak, ura, elektrizitatea, telekomunikazioak) bi behar nagusi atzeman ditugu: batetik baserriko produktuak merkaturatzeko gune egoki baten beharra eta bestetik auzoko bizi soziala indartzea, ez dauden

leketan auzo lokala ezarrit eta auzoko edo erdiguneko plazak egokituz.

Zer egingo du Udalak irtenbidea emateko?

Auzo bakoitzeko hutsune nagusiak identifikatu ditugu. Hala ere, hil honetan zehatzago jakingo dugu zenbat diru izango dugun inbertitzeko 2012an, eta honen arabera lehenetsitako beharrak betetzen edo asetzen joango gara. Baina badira hainbat behar diru inbertsio handirik eskatzen ez dituztenak eta egin ahal ditugunak. Bestalde, Berdura Plazaren eraberritzea aztertzen ari gara herriko baserriarren produktuen merkaturatzea bultzatzeko.

Orain hilabete batzuk, euriteak zirela-eta, Azpeitiko herriak asteburu kritikoa pasa zuen. Atzera begiratu, nola gogoratzen dituzu egun hariak? Zer balorazio egiten duzu? Azpeitia

horrelako egoerak igarotzeko prestatuta al dago?

Azaroaren 5 eta 6a izan ziren egunik larrienak. Larunbat gauean, azaroak 5, ibaiaren altuera ikusita Madalenako kotxe guztiak mugitzeko agindua eman genuen, bestela urak harrapatuko zituen han zeuden kotxe guztiak. Igandean, ibaiak gainez egin eta larrialdi mahai bat deitu genuen, suhiltzaile burua, Udaltzain burua, bi Udal teknikari, alkatea eta neu bildu ginelarik. Suhiltzaileak eta larrialditako gure lantaldea, lurpeko garajeetatik ura ateratzen eta errepideak libratzen hari ziren bitartean, 1.500 pertsona inguru Izarraitz frontoian bertso txapelketa ikusten hari ziren arratsalde horretan. Oso momentu intentsuak izan ziren, baina ongi prestatuta gaudela frogatzeko ere balio izan zuela uste dut. Ondorengo astea ere gogorra izan zen, eskari mordoa bideratu genuen, baita 30en bat luizi kendu ere, eskoilerak edo harri-lubetak egin, bideak garbitu...



Azpeitiko uraren zikloa Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren esku

Enpresak herriko sarea berritu eta inbertsioak egingo ditu

azpeitiko Udalak uraren ziklo integralaren kudeaketa Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren esku utziko du. Horrela erabaki zuen Udalbatzak otsailaren 17an egindako bilkuran, aho batez gainera. Hitzarmena apirilaren 1ean jarriko da indarrean eta gutxienez 10 urteko iraupena izango du.

Erabakia oso garrantzitsua dela azpimarratu nahi du Eneko Etxeberria alkateak, izan ere, orain arte galerak izaten ziren arlo honetan eta aurrerantzean ez dela horrela izango adierazi du: "Ez dugu austeritatea edo zerbitzu publikoak

gutxiago izatea bilatzen, horren guztiz aurkakoa gara. Guk zerbitzu publikoan sinesten dugu, gure ustetan, sektore pribatua gaizki badabil, sektore publikoen aktibitatea bultzatu behar da.

“Orain arte galerak izaten ziren arlo honetan eta aurrerantzean ez da horrelakorik gertatuko”

Eta horretan ari gara, eta horretan apustua egingo dugu. Gure ustetan zerbitzu

publikoak helburu bat duelako: aberastunaren banaketa, daukanari kendu eta ez daukanari eman, eta hau zerbitzu publiko eta sozialen bidez egingo dugu”.

Horrela, galerak ekiditeaz gain, teknikoki ere berrikuntzak eskainiko dira, izan ere, Kontsortzioak ur sarea berrituko du eta inbertsioak egin beharko ditu herrian. Modu honetan, Gipuzkoako Ur Kontsortzioak ur-zerbitzua eskaintzeko sortuko duen azpiegitura edo sarea behar bezala digitalizatuko du eta gutxienez 2.228.284 euroko inbertsioa egin beharko du ondorengo urteetan.



Bestalde, Azpeitiko Udalak Azpeitia Lantzen S.A.ren jabetzakoa den Erdi Kaleko lokala utziko dio Kontsorzioari, bezeroaren arreta zerbitzua ezar dezan enpresak. Lokal hau, gaur egun, Bertan merkatarien elkartea kokatzen den gune berdina da.

Azpeitiko Udalak hartutako erabakiaren ondorioak:

1. Inbertsioak. Gipuzkoako Ur Kontsorzioak bi milioi pasako inbertsioak eta berrikuntzak egingo ditu Azpeitiko sarean.

2. Dirua. Lankidetzaz hitzarmena sinatzearekin batera, Gipuzkoako Ur


Kontsorzioak Udalari 755.042 euro ordainduko dizkio.

3. Galerarik ez. Akordio berriak orain arte izaten ziren galerak ekiditea ekarriko du.

4. Bulegoa. Udalak Erdi Kaleko bulego bat utziko dio Kontsorzioari honek bezeroarentzat arreta zerbitzua eskaini dezan. Honela, Udal Gobernuarentzat oinarritzko asmoa den Alde Zaharraren biziberritzean pauso bat ematea lortuko da.

5. Lanpostu publikoak. Kontsorzioa organismo publikoa da, beraz, ez da enpresa pribaturik azpikontratatu.

Uraren kudeaketaren zikloa



1 Urak hartzea

Ura iturburu eta lurrazaleko ibaietatik dator; batez ere, Lurrazpiko ibaietatik ere hartzen da ura.

2 Urak jasotzea

Ura urtegitan jasotzen da, urei eusten dien horma edo uharka bat eraikita.

3 Urak tratatzea

Ur naturala edo landugabea edateko ur bihurtzen da. Prozesua edateko uren araztegitan (E.U.A.) egiten da. Urak mikro-organismo patogenorik eta substantzia toxikorik gabe egon behar du; usain, zapo- re edo kolorerik ere ez du eduki behar.

4 Urak deposituetara garraiatzea

Ura araztu eta, ondoren, depositu batera garraiatzen da, gizakiok kontsumitzen dugun ura jasotzen da. Deposituari esker, dagoen ura erregula daiteke. Normalean, leku garaietan kokatzen dira, grabitateak banaketa erraztu dezan, ponpaketa erabili gabe.

5 Urak erabiltzaileei banatzea

Banaketa sarea hodi multzo bat da eta hortik giza kontsumorako ura bideratzen da depositutik erabiltzaileen kaniletaraino.

6 Urak H.U.A.-ra garraiatzea


Etxe, denda eta industrietatik datozen ur zikinak kolektoreetara heltzen dira, estolderia sarearen bidez.

7 Urak araztea

Ur zikinak ur zikinen araztegitara iristen dira, kolektorearen bidez, eta hor uren kalitatea berreskuratzen da, prozesu biologiko natural baten bitartez. Arazteak ibaietan bitzta egotea ahalbidetzen du.

8 Urak ibaira edo itsasora isurtzea

Araztutako urak ibaira edo itsasora itzultzen dira, jatorrian zuten antzeko egoeran.



Emakume aktiboak bihurtuz

Aurtengo 'Zuk ere ahal duzu! Etorri lasterka egitera' ekimenean 16 pertsonak hartu dute parte



Aurtengo ekimenean parte hartu duten emakume batzuk

Emakume askok izaten duten bizi sedentarioa alde batera utzi eta fisikoki aktiboagoak bihurtzeko grina, eta horixe da 'Zuk ere ahal duzu! Etorri lasterka egitera' ekimenaren helburu nagusia. Seigarren urtez jarraian, herriko emakumeak lasterka jartzeko saiakera egin du Udalak eta herriko emakumeek ez dute huts egin; 16 neska animatu dira aurtengo edizioan parte hartzera. Hauetatik 12 Maider Aizpuruk gidatu duen goizeko taldean eta gainontzeko 4ak, arratsaldean Naroa Epeldereren gidaritzapean.

Monitoreek adierazi dutenez, hasieran kezka nabari da emakumeengan; "Izan ere, ez dakite gai izango diren aktibitate fisiko hori gainditzeko. Kontutan hartu behar da batzuk sekula ez dute korrikarik egin, horregatik, oinarritik hasten gara, beroketatik. Hauek duten garrantziaz ohartarazi nahi ditugu eta poliki-poliki korrika egiten hasten gara, lehenengo

minutu bat korrika, minutu bat oinez arituz. Astero gehitzen joaten gara korrika egin beharreko denbora eta ekimenaren bukaera iristen denean, 5 kilometro korrika egiteko prestatuta egoten dira", agertu du Epeldek.

"Ehunka emakume aktibo bihurtu dira saio gidatuei esker"


Udalak balorazio oso positiboa egiten du, azken sei urtetan "ehunka emakume fisikoki aktiboak izatea lortu baita". Beraz, aurreikusitako helburua erabat lortzen dela baieztatu daiteke. "Gainera, partaideen jarrera aldaketa ikaragarria izaten denez, behin ekimena amaitu eta gero euren artean elkartu eta urte osoan jarraitzen dute korrika egiten, talde zein herri dinamika suspertuz", esan du Kirol teknikaria den Nerea Lopetegik.

esanak



Maider Aizpuru
Kirol monitorea

"Lanerako, ikasteko eta kirola egiteko irrikazdaude emakumeak"



Naroa Epelde
Kirol monitorea

"Emakume animosoak dira eta oso giro ederra izaten da"

Kalitatearekin konpromisoa duten enpresek ziurtagiria eskuratu dute



Kalitate Turistikoarekin Konpromisoa ziurtagiria jaso zuten enpresak

Azpeitiko 9 eragilek jaso zuten Iraurgi Lantzen garapen agentziaren egiaztagiria

herriko bederatzi establezimenduk jaso dute Kalitate Turistikorako Konpromisoaren ziurtagiria. Kalitate Turistikorako Konpromisoa Turismo idazkaritzaren ekimena da, eta Euskadin Eusko Jaurilaritzako Turismo Sailak sustatzen, garatzen eta kudeatzen du, Euskalit Bikaintasunerako Euskal Fundazioa eta Basquetour Euskal Turismo Agentziaren bidez, eta Iraurgi Lantzen S.A. garapen agentziaren babesarekin.

Otsailaren 14ean egindako banaketa ekitaldian Gipuzkoako Foru Aldundiko Turismo Zuzendaria den Roke Akizuk eta Azpeitiko eta Azkoitiko alkateek, Eneko Etxeberriak eta Pello Bastarrikak, hartu zuten parte. Azpeitiko alkateak bailarako enpresek egindako lana eta esfortzua eskertu eta instituzioen inplikazioa oinarritzotzat jo zuen: "Zuek inplikatu izanak gu are eta gehiago inplikatu beharrean gaudela suposatzen du, gure herrietako eta eskualdeko eskaintza turistikoa sortzen eta hobetzen eta sustapen turistikoan esfortzu gehiago egin beharrean gaudela. Erronka latz

bat dugu, zuek egiten duzuen lana osatu beharra daukagu bisitari turistak erakartzen, eta horretan saiatuko gara", agertu zuen Eneko Etxeberriak.



Kalitatearen ziurtagiriak enpresa turistikoaren barne kudeaketa hobetzea, kontrolak ezartzea bezeroen gogobetetasuna bermatzeko eta instalazioen segurtasuna eta konforta bermatzeko bilatzen du eta aurtun, guztira 19 izan dira ziurtagiria jaso dutenak Urola Erdia bailaran.

2011an ziurtagiria lortu dutenak:

1. Sagasti Zahar Jatetxea, Azpeitia.
2. Landeta Sagardotegia, Azpeitia.
3. Lau Bide Jatetxea, Azpeitia.
4. Neredi Jatetxea, Azpeitia.

2010ean lortutako ziurtagiria berritza lortu dutenak:

1. Mikel Uria Jatetxea, Azpeitia
2. Uztarri Jatetxea, Aizarnazabal.
3. Landagarre Nekazal Turismoa, Azkoitia.
4. Zulueta Nekazal Turismoa, Azkoitia

Azkenik, 2009an lortutako ziurtagiria berritza lortu dutenak:

1. Joseba Jatetxea, Azkoitia.
2. Iturri Jatetxea, Azkoitia.
3. Bai Azkoitia Jatetxea, Azkoitia.
4. Larramendi Torrea Hotela, Azkoitia.
5. Kiruri Jatetxea, Azpeitia.
6. Jai Alai Jatetxea, Azpeitia.
7. Larrañaga Hotela - Jatetxea, Azpeitia.
8. Burnibidearen Euskal Museoa, Azpeitia.
9. Aranburu Landetxea, Zestoa (Aizarna).
10. Ekainberri, Zestoa.
11. Sastarrain Aterpetxea, Zestoa.

Xanjuandegik lokala du



Xanjuandegik bere lokala du dagoeneko. 'Iluntze' izeneko gune berria otsailaren 10ean inauguratu zen eta alkatea ekitaldian izan zen, auzotar ugarirekin batera. XJ Auzolanean elkarte eta auzotarrak zoriontzeaz gain, lanean jarraitzeko animoak eman nahi izan zituen Etxeberriak, "elkarlanean egindako lanak emaitzak izaten ditu eta lokal hau horren adierazle garbia da", agertu zuen. 'Iluntze' lokal berria heritar eta auzotar guztientzat dagoela zabalik adierazi dute XJ Auzolaneke arduradunek eta ekitaldi desberdinak antolatzeke erabili nahi dutenek 645 47 17 00 telefono zenbakira deitu behar dute erreserba egin ahal izateko.

Inauteri ederrak Azpeitian



bost egun iraun zituen Inauteriak Azpeitian eta festa giroa ez zen faltan bota herriko kaleetan zehar. Ostiraleko Euskal Inauterien kalejiratik hasi eta astearteko suzko zezena bitartean, azpeitiarrek moztorroez, zezenaz, kirolaz eta musikaz gozatzeko aukera izan zuten. Udaleko arduradunek oso gustura agertu dira jaiek izan zuten erantzunarekin eta izan ere, herritarrek parte-hartze handia izan zen eta dena ondo irteteko oinarri izan zirela nabarmendu dute: "Dena oso ondo joan zen. Egia da igandean, Eleganteen Egunean, euria egin zuela, baina orokorrean oso gustura gaude", esan du Mikel

Berrikuntzaren alde lanean



Loiola Berrikuntza eta Ezagutza Gunea pauso ugari ematen ari dira eskualdeko berrikuntza sustatzeko. Honela, azken asteetan Urola Erdiko doktore eta enpresen gerenteekin bildu dira elkarlana eta lankidetzat bilatu asmoz. Bailerako lehiakortasuna bultzatzeko bidean ezinbestekotzat jotzen dira elkarlana eta lankidetzat eta horregatik, Loiola Berrikuntzako arduradunak oso gustura agertu dira izandako emaitzekin, izan ere, tendentzia berriak, lehiakortasunerako bideak eraikitzea eta aukera berriak aztertzea adostu ziren. Hurrengo asteetan gai hauen inguruan lanean jardungo direla agertu dute.

Emakumeen Nazioarteko Eguna



martxoaren 8an Emakumeen Nazioarteko Eguna izan zen eta Azpeitiko Udalak, adierazpen instituzionala onartzeaz gain, Bilgune Feministak dataren inguruan antolatutako ekitaldiak babestu zituen. Honela, ugariak izan dira egun bereziaren inguruan prestatu eta aurrera eramane diren ekimenak. Besteak beste, Sara Gomez artistaren argazkiak izan dira ikusgai Emakumeen Txokoan, emakumeen aldeko elkarretaratzeari egin zen egunean bertan, autodefentsa ikastaroa eskaini zen, erromeria eta afaria izan ziren eta kontzertuez eta antzerkiaz gozatzeko aukera izan da.

agenda

MARTXOA

			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	



12, astelehen

ZINEA

Haurrentzat emanaldia
"IRATXOEN ERREGEA"

Lekua: Soreasu kulturgunean
Ordua: 09:30ean

IPUIN KONTALARIA

"MAMUAK ETA BESTE BIZILAGUN
BATZUK"

5 urtetik aurrerako haurrentzat
Lekua: Liburutegia
Ordua: 18:00etan

ZINEA

"WAR HORSE"

Ordua: 21:30ean
Lekua: Soreasu antzokia

13, asteartea

ERAKUSKETA

Hamlet Sargsyan artistaren lanak
Ordua: 18:00etan
Lekua: Sanagustin kulturgunea

14, asteazkena

PROIEKZIO EMANALDIA

Argia dokumentala
"Harizea eta sustraia"

Ordua: 21:30
Lekua: Sanagustin kulturgunea

15, osteguna

ZINE FORUMA

"LE HAVRE"
Antolatzailea: TA3.

Ordua: 21:30ean
Lekua: Soreasu antzokia

16, ostirala

SAN JOSE Jaiak Loiolan

Mus txapelketa
Ordua: 22:00etan

KONTZERTUA

Rafa Rueda
Lekua: Sanagustin kulturgunea
Ordua: 22:00etan

17, larunbata

TRIKITILARI JAIALDIA

Lekua: Soreasu antzokia
Ordua: 18:00etan

ARGAZKI ERAKUSKETA

Antolatzailea: Argazki Elkarte
Ordua: 12:00etatik 14:00etara
Tokia: Betharram Aretoa

XXXI. SAN JOSE SARIA

Antolatzailea: Lagun Onak T.E
Kategoria: juniorrak
Ordua: 16:00etan
Irteera amana: Plaza Nagusia- Loio-
lako Hiribidea

SAN JOSE Jaiak Loiolan

Biatloia
Ordua: 16:30ean

18, igandea

SAN JOSE Jaiak Loiolan

11:30: Zezen txikiak eta poniak

13:00 Asto lasterketa
17:30: Herri kirolak
Harri-jasotzen
Goenatxo II eta Ostoloza
Aizkoran
Olasagasti eta Nazabal
LAGUN ONAK MB
BTT irteera

ARGAZKI ERAKUSKETA

Antolatzailea: Argazki Elkarte
Ordua: 12:00etatik 14:00etara
Tokia: Betharram Aretoa

ANTZERKIA

Morritson eta Gartzia
Ordua: 18:00etan
Tokia: Betharram Aretoa

19, astelehena

IPUIN KONTALARIAK

"HAIN ANITZA, HAIN EDERRA"
6 urtetik 10 bitarteko haurrei zuzen-
dua
Lekua: Liburutegia
Ordua: 18:00etan

ARGAZKI ERAKUSKETA

Antolatzailea: Argazki Elkarte
Ordua: 18:00etatik 20:00etara
Tokia: Betharram Aretoa

20, asteartea

ARGAZKI ERAKUSKETA

Antolatzailea: Argazki Elkarte
Ordua: 18:00etatik 20:00etara
Tokia: Betharram Aretoa



21, asteazkena

ARGAZKI ERAKUSKETA

Antolatzailea: Argazki Elkarte

Ordua: 18:00etatik 20:00etara

Tokia: Betharram Aretoa

HITZALDIA

“Pelbis Zorua... zertarako indartu?”

Hizlaria: Leire Ondarra, fisioterapeuta

Ordua: 19:30

Lekua: Emakumeen txokoa

22, osteguna

ZINE FORUMA “...”

Antolatzailea: TA3.

Ordua: 21:30ean

Lekua: Soreasu antzokia

ARGAZKI ERAKUSKETA

Antolatzailea: Argazki Elkarte

Ordua: 18:00etatik 20:00etara

Tokia: Betharram Aretoa

23, ostirala

ARGAZKI ERAKUSKETA

Antolatzailea: Argazki Elkarte

Ordua: 18:00etatik 20:00etara

Tokia: Betharram Aretoa

VI. ERNIARRAITZ SARIKETA 2012 FINALA

Lekua: Gaztetxean

Ordua: 22:00etan

24, larunbata

LAGUN ONAK MB

Bisaurin-era irteera. Federatuak bakarrik

ARGAZKI ERAKUSKETA

Antolatzailea: Argazki Elkarte

Ordua: 12:00etatik 14:00etara

Tokia: Betharram Aretoa

SAN JOSE Jaiak Loiolan, AUZO AFARIA

Elustondo anai-arrebekin

Ordua: 21:00etan

25, igandea

LAGUN ONAK MB

Bisaurin-era irteera

Federatuak daudenentzat bakarrik

TXIKI BIRAN

Lekua: Sanagustin kulturunea

Ordua: 18:00etan

ARGAZKI ERAKUSKETA

Antolatzailea: Argazki Elkarte

Ordua: 12:00etatik 14:00etara

Tokia: Betharram Aretoa

26, astelehena

IPUIN KONTALARIA “KONTU KONTARI”

4 urtetik aurrerako haurrentzat

Lekua: Liburutegia

Ordua: 18:00

ARGAZKI ERAKUSKETA

Antolatzailea: Argazki Elkarte

Ordua: 18:00etatik 20:00etara

Tokia: Betharram Aretoa

27, asteartea

ARGAZKI ERAKUSKETA

Antolatzailea: Argazki Elkarte

Ordua: 18:00etatik 20:00etara

Tokia: Betharram Aretoa

28, asteazkena

ARGAZKI ERAKUSKETA

Antolatzailea: Argazki Elkarte

Ordua: 18:00etatik 20:00etara

Tokia: Betharram Aretoa

29, osteguna

ARGAZKI ERAKUSKETA

Antolatzailea: Argazki Elkarte

Ordua: 18:00etatik 20:00etara

Tokia: Betharram Aretoa

30, ostirala

ARGAZKI ERAKUSKETA

Antolatzailea: Argazki Elkarte

Ordua: 18:00etatik 20:00etara

Tokia: Betharram Aretoa

31, larunbata

XIX. MARATOI ERDIA Antolatzailea: XEYE

Irteera: Azkoitia

Ordua: 16:30

Helmuga: Azpeitia (Hotel Loida aurrean)

ARGAZKI ERAKUSKETA

Antolatzailea: Argazki Elkarte

Ordua: 12:00etatik 14:00etara

Tokia: Betharram Aretoa

KONTZERTUA

Elkartasun kantu lehiaketa

Lekua: Sanagustin kulturunea

Ordua: 22:30ean

martxoak

14



denon artean

herri kontseilua

2012ko aurrekontuak

Sanagustin kulturegunean
19:00etan



Plaza Nagusia, 5
Tel.: 943 15 72 00 • www.azpeitia.net

